

2023-09-15 / 787 ZENBAKIA / 19. URTEA
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA AIURRI.EUS TOKIKOM



Gasolindegi erraldoia kamioientzat

Ergoien auzoan, Urnieta eta Andoain udalerrien arteko muga-mugan, hedadura handiko gasolindegia eraikitzen ari dira. MLC Energia enpresak egin du iragarpena / 16



Txapel berria Ansarentzat

Juanenea lagun handia garaitu zuen Galarretan, Eusko Label finalean / 4-5



Partaidetzako aurrekontuen edizio berria martxan jarri du Andoingo Udalak / 6



Basabizi, ingurune naturaleko animaliak errekuaratzeko gunea Urnietan / 2-3



Urnietako Etxeberri plaza jaietan murgilduko da, ostiralean hasi eta igandera bitarte / 8-9



Andoingo Jabekuntza Eskolaren edizio berria iragarri dute. Izen-ematea zabalik dago / 7



Mendi Film jaialdiko onena ikusteko aukera izango da Saroben, datorren irailaren 21ean / 15

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Urtebeteko ibilbidea egin du, jada, Basabizik, garai batean, Arrano Etxea zenak. Urnietan du kokalekua eta ingurune naturaleko animalien berreskuratzea du jardunaren oinarri. Horretarako, adituez osatutako talde batek lanean dihardu buru-belarri, tartean, Alazne Conde Lizarralde al baitariak. Elkarriketa amaitu ondoren, atea jo du basozainak, Oñatitik putre bat ekarriko dutela jakinarazteko.

Zer da Basabizi?

Basa-fauna errekuiperatzeko zentroa da Basabizi. Hemen, ingurune naturaleko animaliak jasotzen eta behatzen ditugu, zer gertatzen zaien ikusteko, gugana zergatik iritsi diren ulertzeko. Balorazioa egiten diegu, zaindu egiten ditugu, albaizitza-prozesu baten bidez. Animaliak beren etxera osasuntsu itzultzea dugu xede.

Erreskatatutako toki berera itzultzen al dira sendatutako animaliak?

Espeziearen arabera. Animalia bat jasotzen dugunean, garrantzitsua iruditzen zaigu erreskatatutako tokiaren berri izatea. Horregatik, basozainekin elkarlanean aritzen gara, animaliak ezagutzeaz gain, badakitelako zein informazio baliagarri jaso behar duten, ondoren guri helarazi ahal izateko. Beste gauza batzuen artean, koordenadak hartzen dituzte. Orduan, animalien, espeziearen arabera, oso interesgarria da leku berera itzultzea. Normalean, hori egiten ahalegintzen gara. Halaber, partikularren bat edo beste etorri da inoiz, baina, oro har, basozainen eskutik iristen zaizkigu. Dena dela, hirian agertutako animaliak ez ditugu bertara eramaten, esaterako, putre (*Gyps fulvus*) bat Donostia erdian agertzen bada, toki aproposagoa bilatzen zaio.

Gipuzkoa da zuen lan-esparrua. Animaliek, ordea, ez dute muga politikoez ulertzen. Ba al duzue harremanik inguruko zentroekin?

Lurralde bakoitzak bere zentroa du. Beharra baldin badago, elkarlanean egiten dugu lan, jakina. Pasa den urtean, Naumann belatz (*Falco naumanni*) bat jaso genuen. Hemen, ordea, ez dute berezko kokapenik; ondorioz, Nafarroara eramanez gero, eta beraiek arduratu ziren hura askatzeaz. Animalien ongizatea bilatzen dugu, finean.

“Animaliak beren etxera osasuntsu itzultzea dugu xede”

ALAZNE CONDE LIZARRALDE ALBAITARIA

Basabizi du izena, garai batean Arrano Etxea zenak. Ingurune naturaleko animaliak errekuiperatzeko zentroa da Arizmendiko foru finka



Conde al baitaria. AIURRI

Zein ezaugarri ditu Basabizi inguruzten duen eremuak?

Lasaitasuna da nagusi eta paradisua da animalientzat, baita guretzat ere. Errepidea dugu ondoan, baina ez da askorik entzuten eta jende gutxi igarotzen da oinez. Interesgarria da eremua, nolabait, isolatuta dagoelako, izan ere, animalia horiek ahalik eta harreman txikiena behar dutelako gizakiarekin. Are gehiago, batzuetan, animaliak hemen alboan askatzeko aukera izan dugu, trikua (*Erinaceinae*), esaterako. Berdegunez inguratuta gaude eta erreka igarotzen da ondotik.

Hegaztiak jasotzen dituzue gehienbat, ezta?

2022ko martxotik hasita, urtebetean bildutako datuak dira honako hauek: hemen ditugun animalien % 85 hegaztiak dira. % 9, aldiz, ugaztunak eta % 6, narrastiak. Iristen diren % 60 errekuiperatu dira. Hegaztien migrazioarekin zerikusia du gure lanak. Eragina du horrek guregana iristen diren animalietan. Orain, irailaren bueltan, Zangak (*Morus bassanus*) jaso ohi ditugu.

Zer gertatzen zaio gainerako % 40ari?

Lan gogorra da, gugana iristen direnerako oso gaizki baitaude animaliak. Asko hil egiten dira, eta batzuk eutanasiatu egiten ditugu, alegia, animalia baten bizitzak irtenbiderik ez duela ikusten badugu, fabore hori egiten diogu.

Oso egoera kaskarrean datozela diozu. Gaixotasunak jota, zaurituta, estresarekin...?

Asko kolpeak hartuta, hausturaren batekin etortzen zaizkigu, garuneko lesio traumatikoarekin... Sarritan, buruari asko eragin behar diogu, ez baitugu jakiten zer gertatzen zaien. Denborale garaian, itsaso-hegazti dezente izan ohi ditugu, ahultasunagatik. Asko nekatzen dira uretatik ateratzen ahalegintzen, eguraldi txarrarekin. Horrelakoetan, soilik, atsedena hartzeko beharra daukate, ondo jateko eta indarrak batzeko. Saiekin (*Gyps fulvus*) ere asko gertatzen da: ezin dute gorantz igo korronte termikorik egon ezean. Horrela, nekatu egiten dira, energia guztiak xahutzen dituztelako ateratzen saiatzen.

Zenbateko inpaktua du animalien ongizatean herriguneak nahiz asfaltatutako eremuak geroz eta handiagoak izateak?

Saia (*Gyps fulvus*). AIURRIZuhaitz belatza (*Falco subbuteo*). AIURRIKaio hankahoria (*Larus michagellis*). AIURRI

Normalean, hiri-artefaktuekin jasotzen dituzte kolpeak. Asfalto gehiago egoteak areagotu egiten ditu, noski, autoen kontrako talkak. Kableekin elektrokuzioak izaten dituzte, era berean.

Ba al da inguruneotan ohikoa ez den animaliarik zuenean?

Jendeak beren etxean izaten dituen animalia exotikoak. Askotan, ihes egiten dute, edo askatu egiten dituzte: Floridako dortokak (*Trachemys scripta scripta*), Gekko leopardoak (*Eublepharis macularius*)...

Horiek, baina, ez dituzue aurkitutako tokian uzten bueltan, ezta?

Etxea bilatzen diegu. Zaila da guretzat, ez garelako adopzio zentro bat, eta ez dugu harremanik lan horretan egoten diren eragileekin. Ahoz aho, animalia horiek etxean hartzeko prest dagoen jendea bilatzen dugu. **Zein azpiegitura dituzue hona ekarritako animalia horiek guztiak artatzeko?**

Sarreran, basozainek bertan animaliak uzteko instalazio bat daukagu. Lan-ordutegitik kanpo ekartzen badute, bertan izaten dira, hurrengo egunean gu iritsi arte. Bertan, ahalik eta baldintza egokienetan egoteko dago prestatua txokoa. Bestalde, zain-

keta intentsiboko box delakoak ditugu, zaugarri dauden animalientzat. Toki itxiak dira, eta bakoitzak bere gelaxka du. Etxola honetan, bulegoa, ebakuntzategela, X- izpiak eta laborategia ditugu. Horrez gain, hegan egiteko espazioak ditugu, txikiak, ertainak zein handiak. **Elkarrekin bizi al dira hona iristen diren animaliak, ala nor bere kaio-lan egoten da?**

Posible den heinean, bakoitza bere espazioan izaten ahalegintzen gara, izan ere, espezie guztiak ezin dira elkartu. **Zer egin behar du zauritutako animalia batekin topo egiten duenak?**

Nahiago izaten dugu animaliak basozainen eskutik iristea gugana. Horregatik, animalia bat topatuz gero, onena honako telefono zenbaki honetara deitzea da: 943 00 04 20 (Mendi eta Natur Ingurunearen Zuzendaritza).

Animalien egonaldi-denbora al dakorra da, ezta? Beharren arabera, alegia.

Hori da, oso aldakorra da eta datorren zergatiaren arabera. Orain ditugun artean, denbora gehien daraman animalia Zapelatz arrunt (*Buteo buteo*) bat da. Ez da ohikoena. Batzuk iritsi eta hiru egunetara askatu egiten ditugu eta beste batzuk

denbora-tarte luzeagoan egoten dira gurekin. Oso prozesu individuala da, animalia bakoitza mundu bat delako: gauza ezberdinak jaten dituzten espezie bereko bi kide izan ditugu. Hortaz, behaketak berebiziko garrantzia du gure lanean.

Zenbat kideko taldea osatzen duzue Basabizín?

Imanol Sagarazu da albaitaria nagusia. Goizetan, Mamen laguntzailea eta biok aritzen gara. Arratsaldean, berriz, Eneritz albaitaria egoten da. 24 orduko telefono-zerbitzua daukagu, beharrei ahalik eta ondoen erantzuteko.



Imanol Ansa, labeldun erremontista. ORIAMENDI

“Urrizaren, onenaren aurka hartutako kolpeek erakutsi didate ondoen txapela lortzeko bidea”

IMANOL ANSA ERREMONTEKO BURUZ BURUKO TXAPELDUNA

Erremonteko gailurrera iritsi da Imanol Ansa, Ansa II. urnietarra; 30-17 irabazi zion finalean Aritz Juaneneari, eta hamarkada bateko hazkunde bideari errematea eman

Andoni Urbistondo URNIETA

Kirol diziplinaren batean munduko onena izatea oso zaila da. Imanol Ansa 27 urterekin bilakatu du Buruz Buruko txapelduna. Bide baten goiko langa bezala ikusten du, denbora baita bere burua onenekin lehiatzeko gai ikusten duela. Javi Urriaza txapelduna du ahotan sarri: asko erakutsi omen diote bere aurkako porrotek, eta pasa den ostegunean, finalaren atarian, nafarrarekin izandako solasaldiak. Hitz goxoak izan ditu, era berean, finalean aurkari izan zuen Juanenea lagunarentzat.

Izarren pare ibili zen aste hasieran Imanol Ansa, elkarrizketa eskaera mordoari erantzuten. Gozo ospatu zuen txapela larunbat gauean, baina astelehen goiza lantokian pasa zuen, fin-fin. Arratsaldean egin zuen hitzordua Aiurri-rekin, bere etxean, Setien sagardotegiaren ondoan.

Biharamuniki eduki al zenuen igandean?

Zerbait, bai. Larunbatekoa fuertean joan zen, eta astelehenean bueltak ematen ari nintzen oraindik. Oianumen afaldu genuen, gero Oiandisk-etik buelta, eta Zizurkilera, Pesus-era. Zarautz urrun samar ote zegoen, eta Zizurkilera joan ginen. Lau lagunek etxean egin zuten lo, eta hainbestean iritsi ginen etxera. Garraio publikoan ere ez ginen txukunegi moldatu, baina iritsi ginen. Igandean jaiki, dutxa bat hartu, etxean lo egin zutenak entregatu han eta hemen, eta holaxe.

Bi egun pasa dira txapela jantzi zenuenetik. Zer moduz pasa dira egunak? Lortutakoaz jabetu al zara, dagoeneko?

Larunbatean ez: parranda, biharamuna... Bazkaldu ondoren partida ikusi nuen, eta merezita irabazi nuela uste dut. Serio aritu nintzen.

Noiz jabetu zinen txapela zurea zela?

Txapeldun izateko aukera neukala aste osoan sentitu nuen. Aritzek duda gehiago zituela jabetu nintzen, eta oso indartsu sentitu nintzen finala baino lehen. Plaza handia da, tentsioa zen, eta sufritzen hasi banintzen ere, materiala kontrolatu ezinik eta beste, azkar egokitu nintzen, eta neurri ona eman. Ez nintzen galtzaile ikusi inoiz, jokoan Juanenean baino gehixeago nintzela jabetu nintzen. Oso zentratuta nongoen. Garaipenean baino

tantoz tanto joateko helburu bakarra neukan buruan, eta 30. tantoa kolpetik bezala etorri zen, espero gabe. Azken sakean ere sakea nola egin pentsatu nuela gogoratzen naiz, txapelean pentsatu baino.

Eta behin lortuta?

Aitarekin oroitu nintzen. Amets hau gauzatu bada beragatik da, edo gora begiratu eta 'egin diat' bezalako zerbait esan nion. Ondoren, eta ospakizun handirik egin gabe, Aritz-ekin gogoratu nintzen, berak ere nire antzeko egoera bizi izan zuelako duela 12 urte, aita galduta. Berarentzako oso berezia zen, banekien nola sentituko zen, eta berari kasu egin eta errespetuz jokatu nuen.

Zer sentitzen da txapeldunen pabillo hori zeharkatzen denean?

Arraroa egin zitzaidan, egia esan. Aurten bi euforia une izan ditut. Bat Urrizari irabazi nioanean, beti bere aurka estropezu egin izan dudana harria izan delako urtetan. Erremontista hobe egin nau Javik, baina psikologikoki gogorra izan da haren kontra kolpatzea behin eta berriro. Bigarrena, noski, txapela irabazita. Une berezia izan zen, emozio pilaketa. Tokiz kanpo sentitu nintzen apur bat. Hiruzpalau urte atzera bizi izandako sentsazioak etorri zitzaizkidan gogora, gaizki pasa nituen hila-beteak: obsesionatu egiten nintzen buruz burukoarekin, aitarekin oroitu Setien-dik Galarretara bidean autoan, presio gehitxo... Gaixotu ere egin nintzen bi txapelketetan, sukarra eta hagineko infekzioarekin... Patxada pixka bat behar nuela jabetu nintzen, horrela ezin nuela segi, eta hala izan da azken bi urteetan. Lanketa berezia egin dut aurten, eta bat-bateko euforia baino onartutako, asimilatutako garaipena izan da. Lasaitasuna izan zen, euforia baino. Eta errespetu osoa Juanenea lagunari.

Pareta handia bota al zenuen lurrrera finala irabazita?

Ez hainbestekoa. Esango nuke Masters-eko finala irabazi nioanean pareta handiagoo erori zela. Orduko hartan ikaragarri gozatu nuen. Maila bikaina eman nuen Masters-eant, eta 'hemen nago' sentitu nuen. Buruz burukoan ligatxoan oso erregularrak izan naiz, konfiantza lortuta zegoen. Garrantzitsuagoa da buruz burukoak, noski, baina

nire kirol ibilbidean inflexio punturen bat baldin badago hori Masters-a izan da.

Txapelarekin zerbait hasten da? Aspaldi hasitako bidearen segida da?

Nire buruari askotan egin diodan galdera da hori. Obligazioa jarri nion nire buruari buruz noizbait buruko irabazteko, sinetsita nengoen lortuko nuela, eta behin txapela lortuta, ze Imanol ikusiko dugun jakingo da: oneneko bat izango den urte batzuetan, txapel batekin konformatu eta lasaituko ote den... Ez dut hausnartzeko astirik eduki, oraindik, baina bidea gogorra izan da, asko kosta zait honaino iristea, eta saiatu nahi nuke beste txapel bat, edo pare bat lortzen. Buruak hala eskatzen dit. Esperientzia hartu dut, lehen ez nekizkien gauza asko ikasi ditut, eta saiaturiko naiz.

Nolakoa izan da ingurua? Esan nahi dut, ezaguna da zu txikia, txikiegia zinela esaten zuten ahotsak, inoiz ez zinela gailurrera iritsiko zioten esanak. Zer moduz kudeatu dituzu?

Asko sumatu ditut, eta eragina izan dute nigan. Zalantzarik ez. Gaiztoak izan direla ez nuke esango. Galdu izan dudanean etorri zaizkidanen tonua garrantzitsua izan da. Batzuk errespetuz etortzen zaizkizu, baina besteak zaurian mina egitera. Beti errespetuz jokatu izan dut etorri denarekin, baina tarteka lotsagabe samar jokatu duen horri tonu zatar berean erantzuteko gogoarekin geratu izan naiz, aitortzen dut. Ziurgabetasuna sumatu izan dut inguruan, galtzen nuenean, baina nik ahalegin handia egin dut, sendo eutsi buruz, finalak galduta ere, galtzaile ez sentitzeko. 2019tik 2021era bitarte joka nitzakeen binakako final guztiak jokatu nituen. Erremontista guztiei irabazi nien, Urrizari izan ezik. Sei edo zazpi final jokatu nituen, sei Urrizaren aurka, niretzako historiako onena. Galdu egin nuen, bai, baina niretzat historiako onena izan den erremontistaren aurka. Nire paretak izen bat dauka: Javi Urriza da. Azken bi finaletan galtzaile karga, zama hori eraman izan dut bizkar gainean, baina indartsuago ere egin nau. Txapel hau irabazteko Urrizaren aurka pilotutako porrotak lagungarriak izan dira, ez daukat dudarik. **Egon al zara Urrizarekin txapela irabazi ondoren?**



Juanenea eta Ansa, sari banaketa ekitaldian. ORIAMENDI



Ansa, garaipenetik gertu zegoela. ORIAMENDI

Ez, lehenago egon nintzen, txapeldunen bazkarian. Solasaldi interesgarria eduki genuen, trago bat hartu genuelako bazkaria baino lehen. Esan zidan: "Ansa, ez dizut ezer esango ze

"TXAPELDUN IZATEKO AUKERA NEUKALA ASTE OSOAN SENTITU NUEN"

nik finalak jokatzen nituenean mundu guztiak ematen zizkidan aholkuak, eta ez zidaten ezertarako balio". Hausnarketa ironikoa eragin zidan. Buruz buruko 8 txapel irabazi eta 11 final jo-

"LAGUNEKIN GALDUTAKO DENBORA BERRESKURATZEN SAIATU NAHI NUKE"

katu dituen erremontista batek lehen finala jokatzen duen norbaiti halakorik esatea sekulakoa iruditzen zait. Jende ezjakin askok aholkuak ematen dizkizu, ikaragarri jakingo balute bezala, baina txapeldun handi batek, niretzako handia denak, aholkurik ez. Esanguratsua. Dakienak ez du ezer esaten, eta ezer ez dakienak denetik esaten dizu. Esan nion, norbaitek aholkuak emateko baimena bazuen bera zela, eta pare bat aholku eman

zizkidan, niretzat garrantzitsuak, eta estimatzen dizkiot.

Eugenio osabarekin harreman ona duzu, garrantzitsua izan da zuretzat.

Bi osaba ditut, bakoitza bere izaerarekin, biak oso garrantzitsuak niretzat. Eugeniok lasaitasuna transmititzen dit, ez dugu erremonteari buruz hitz egiten. Bartolok gehiago bizitzen du, sentimenduak errazago plazaratzen ditu. Osaba eta amarekin afaritxo on bat egingo dugu sagardotegian, ospatzeko, baina prestatu gabeko ospakizunak politagoak izaten dira beti.

Jendeak zuretzat helarazitako galdera, bukatzeko, Imanol. Non moldatzen da hobe Ansa? Xestoarekin edo mikrofonoen aurrean?

Harrokeriaz ez, harrotasunez esango dut erremontez zerbait badakidala, maila txukuna lortu dudala, baina mikrofonoaren aurrean ere ondo moldatzen naiz. Bietako bat aukeratu behar ko banu, erremontea aukeratu ko nuke.

Ze plan, hurrengo asteetarako?

Arazo fisiko bat badaukat belanean, plasma tratamendu batean nago eta hirugarrena hartu behar dut ostiralean. Hartzen dudanean lehiaketa erritmoa apaldu behar dut pixka bat, eta hala egingo dut. Abuztuan lagunekin egoteko tarte txikia izan dut, eta haiekin ere galdutako denbora berreskuratzen saiatu nahi nuke.

Proposamenak luzatzeko garaia da

Andoaingo Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzan, partaidetzako aurrekontuak 2024 ekimena abiatu dute. Andoainen 250.000 euroko partida gorde da horretarako. "Hartu hitza" izenburupean, edizio berria prest da

Erredakzioa ANDOAIN

Aurreko urteetako dinamika beretsua izango da. Udalak 250.000 euroko partida herritarren proposamenak bideratzeko baliatuko du. Horretarako, andoaindarrek idatziz aurkeztu behar dituzte baren proposamenak. Irailaren 18an hasita, lehen fasea abiatuko da. Hiru astez, herritarrek herri barruko eskumeneko ideiak proposatu beharko dituzte. Auzoari edo herriari loturikoak izan daitezke, eta baita norberaren interesekoari ere. Hots, kirol, kultura edo gizarte mailako proposamenak. Lehen fase horretan jasotakoak batzorde tekniko batek aztertuko ditu, eta horretatik bigarren eta azken aukeraketa egin ahal izango dute herritarrek. Abendurako bukatu beharra dago prozesua, aukeraturako ideiak 2024ko Udal aurrekontuen partidatan txertatu daitezzen.

Astelehen goizean, Andoni Alvarez Lete alkateak prozesuaren aurkezpena egin zuen. Parte-hartzearen garrantzia azpimarratu zuen eta, adierazpen berean, aurtengo bi berrikuntza nagusiak iragarri zituen: "Gobernu taldeak auzoz auzoko bisitaldietan eta bestelako dinamikan herritarren parte hartze zuzena sustatu nahi du. Orain



Udal ordezkariak, Andoni Alvarez alkatearekin eta Goiatz Salvador aurtengo ekimenaren dinamizatzailearekin, parte-hartze prozesuaren aurkezpenean. AIURRI

aurkezten duguna beste bat gehiago da. Bi berrikuntza izango ditu aurtengoak. Lehena, Informazio puntua jarriko dugula herriko toki jakinetan. Bertan, dinamizatzaileak prozesuari buruzko argibideak eskainiko ditu, eta zalantzak argitzen edota txartela betetzeko laguntza eskaintzen ariko da.

Bigarrena, 16-18 urteko gazteei bereziki jarriko diegula arreta. Parte-hartzearen kulturak adierazpide ezberdinak ditu. Hau horietako bat da. Ikastetxeen

lankidetzarekin garatuko dugu bigarren berrikuntza".

Informazio-puntua

Irailaren 18an abiatuko da kanpaina, eta egunotan buzoi guztietara iritsiko da parte hartzeko txartela. Mahaia ipiniko da, bestalde, datozen egunetan:

- Irailak 16, larunbata. 11:00-13:00, Zumea plaza.
- Irailak 19, asteartea. 11:00-13:00, Merkatu plaza.
- Irailak 23, larunbata. 11:00-13:00, Zumea plaza.



AIURRI

Irekiera-ekitaldia, Goikoplazan

Goikoplazan, 5 helbidean dago Keinu denda, irailan hasita. Kale Nagusian hamar urtez egon ostean, tokiz aldatzea erabaki dute. Espazio zabala eta argitsua da, eta Ana eta Roger negozioaren sustatzaileek ilusio handiz ekin diote aro berriari. Aurreko larunbatean, paella handi bat egin zuten, gune berriaren irekiera bezeroekin eta herritarrekin batera ospatzeko.



AIURRI



AIURRI

Koruko Ama Birjinaren eguna Sorabillan

Meza eta hamaiketakoa izan zen, aurreko ostiralean. Alberto Agirre abesbatzak abestu zuen mezan

Erredakzioa ANDOAIN

Azken bi urtetan meza eta hamaiketakoa antolatu dira Sorabillan, Koruko Ama Birjinaren egunean. Gutxieneko horri eusten zaio, hiru eguneko ospakizunak atzean utzita. Orduko Jai

Batzordeak gehiago ez zuela antolatuko erabaki zuen, eta etorkizunean bolondres berriek Jai Batzordearen lekukoa hartu bitartean, gutxieneko bi ekitaldi horiei eusten ahaleginduko dira.



Meza eta gero, hamaiketakoa egin zuten Sorabillako elizaren arkupean. AIURRI



Barandiaran berdintasun zinegotziak zuzendu zuen agerraldia, eta alboan izan zituen beste alderdietako ordezkariak. AIURRI

Parte-hartzea eskaini, ahalduntzea sustatzeko

“Beharrezkoa da emakumeon parte-hartze soziala eta politikoa sustatzea ahalduntze prozesuen bidez”, adierazi zuen Haizea Barandiaran Berdintasun zinegotziak. Guztira, bederatzi ikastaro eta lantegi egongo dira. Izen-emateko epea zabalik dago

Erredakzioa ANDOAIN

Jabekuntza eskola –2023ra iritsita, zer den ez dakienarentzat– emakumeentzat egokitutako formakuntza eskola da, emakumeen errealitateei, beharrei eta beren bizi-baldintzei egokituta. Hitzaldiekin, ikastaroekin eta saioekin osatzen da eskola. Guztira, Andoaingo Berdintasun Sailaren eskaintzari erreparatuta, bederatzi ikastaro eta lantegi egongo dira: serigrafia-lantegia, batukada-ikastaroa, elektrizitate-lantegia, autodefentsa feminista... Urtean bitan berri-tzen den ekimenaren xedea Udalak banatu duen eskuorriaren aitzin-solasean ageri da: "Ahalduntzea emakumeon izaeraren autokontzientzia hartzea, autoestimua lantzea, gure gaitasun propioak ezagutzea eta emakumeoi dagokigun espazioa berreskuratzea". Behar eta interese antzekoak dituztenak elkartzea da bigarren xedea: "Jabekuntza Eskola harremanetarako eta esperientziarako espazioa da. Andoaingo emakumeen arteko sareak sortu nahi ditugu, elkar ezagutu, lagundu, topatu eta gozatzeko".

Aurreko ostiralean egin zuten aurkezpen-ekitaldia. Haizea Barandiaran Berdintasun zinegotziak zuzendu zuen agerraldia, eta alboan izan zituen ordezkariak politikoak duten gainerako alderdiak.

Haizea Barandiaran Berdintasun zinegotziak adierazi zenez, "emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreala dugu helburu, eta, horretarako, beharrezkoa da emakumeon parte-hartze soziala eta politikoa sustatzea ahalduntze prozesuen bidez".

Izen-ematea zabalik

Lantegi guztiak doakoak dira, baina, alde zuzenetik, izena eman behar da. Plazak mugatuak izango dira, eta izena eman duten emakumeen artean zozketatuko dira.

- Egoitza: Berdintasun lantsaila, Urigain.
- Webgunea: jabekuntza.andoain.eus.
- Telefonoa: 943 300 830 (luzapena: 380/397).
- E-posta: berdintasuna@andoain.eus.

Andoaingo emakumeentzako jabekuntza eskola

2023 - UDAZKENEKO IKASTAROAK





ANDOAINGO UDALA

IZEN EMATEA ETA HARREMANA:
jabekuntza.andoain.eus
 Andoaingo Udaleko Berdintasun lantsaila.
 Tel. 943 300 830, luz. 380 – 397;
berdintasuna@andoain.eus.
 Andoaingo Udaleko ATARIA zerbitzua

Emakumeen elkartegintza: emakumea eta filosofia
 ASTELEHENAK. Urriak 9, 23; azaroak 6, 20; abenduak 4, 18.
 18:30-20:30, Urigain. Marisa Hurtado.

Serigrafia lantegia
 ASTELEHENAK. Azaroak 13, 20, 27.
 17:00-19:00, Urigain. Uxue Bereziartua.

Batukada feminista
 ASTELEHENAK. Urriak 16, 30; azaroak 13, 27; abenduak 11.
 18:00-20:00, Leizaran institutua. Botapa Batukada.

Elektrizitate lantegia
 OSTEGUNAK. Urriak 5, 19, 26; azaroak 2, 9, 16, 23, 30.
 17:00-20:00, Urigain. Paz Carbajosa Dalmáu.

Autodefentsa feminista
 LARUNBATA. Abenduak 2.
 09:30-15:00, Allurralde kiroldegia. Emagin taldea.

Kosmetika naturala lantegia
 I hasiera ASTEAZKENAK. Urriak 4, 11, 18, 25.
 II aurreratua ASTEAZKENAK. Azaroak 8, 15, 22, 29.
 18:00-20:00, Urigain. Kris Lizarraga.

Beste urtaro bat: Klimaterioa
 OSTIRALAK. Urriak 20, 27; azaroak 3, 10, 17, 24; abenduak 1.
 17:00-19:00, Urigain.
 Sexune Elkarte (Elene Jimenez eta Maria Lopez).

Bizikletan ibiltzea ikastea
 ASTEARTEAK eta OSTEGUNAK. Urriak 3, 5, 10, 17, 19, 24, 26, 31.
 17:45-19:45, Ondarreta ikastetxea. Ainara Leibar (Txirindandoain).

Jatorri anitzeko emakumeen elkargune multikulturala
 ASTEARTERO.
 16:30-18:30, Urigain. Sorburu.



Estela Cuevas eta Fran Bravo, Etxeberri elkarteko kideak. AIURRI

“Urtez urte, aurrera egin dugu auzoko jaiekin”

ESTELA CUEVAS, FRAN BRAVO ETXEBERRI ELKARTEKO KIDEAK

Etxeberriko jaiak izango dira asteburu honetan, bosgarrenez. Hiru eguneko egitaraua antolatu du auzo elkarteak, herritarren parte-hartzeari garrantzia emateko xedez

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Berezia da iraila urnietarrentzat, ospakizun giroz blaitzen baita uda amaiera. Hori horrela, herriko festen hasierako txupinazoa botako du asteburu honetan Etxeberri elkarteak, izan ere, auzoko jaiak izango dira, ostiraletik hasita, igandera bitarte. Jada, prest dute guztia antolatzailerik.

Iristear dira zuen auzoko jaiak. Gozamenak, ordea, alde aurreko

antolaketa dakar. Nolako izan da prestaketa?

Orain hilabete batzuk hasi ginen. Gainera, udako sasoi antolaketa-lanen erdian daukagu. hor-

"FESTA-GIROA BESTE TOKI BATZUETARA ZABALDU NAHI DUGU, AUZOEI GARRANTZIA EMATEKO"

taz, aurretik ere prestaketan ibili gara, irailean, soilik, azken ukituak emateko egitarauari.

Bost urte betetzen dituzte jaiak. Atzera begira jarrita, aurrerapausoak eman al ditu egitarauak?

Urtez urte, aurrera egin dugu auzoko jaiekin. Festek, esaterako, iraupen luzeagoa dute orain eta egitaraua ere osatuagoa daukagu. Azpiegitarari dagokionez, material gehiago dugu esku artean. Aurtan, adibidez,

gure karpa propioa erosi dugu, urtero, alokairuarekin, gure aurrekontuaren erdia horretara bideratu behar izaten baikenuen. Bestalde, gero eta gutxiago kostatzen zaigu egitaraua osatzea, martxa hartuta diogulako.

Lehenengo urtean, jende gutxi mugitu zen. Pixkanaka-pixkanaka jendea sartu da antolakuntzan; bakoitzak ahal duenetik ematen dio taldeari. Kide-kopuruak gora egiteak ekintza berrien antolaketa ekarri dio elkarteari. **Auzokideen artean sartzeko espazioa al da elkartea?**

Jakina, elkar ezagutzeko aukera ematen digu, eta antolakuntza-lanetan sartzera animatzen ditugu. Jende gaztea behar dugu, honi jarraipena emateko, belaualdi berriei lekukoa emateko. Herriko gainerako elkarteekin elkarlana sustatzea interesgarria litzateke.

Badute zerbait komunean zuek antolatutako jai guztiek: tokiko merkatariei eta eragileei garrantzia ematen diezue.

Herriko jendea mugitzea nahi dugu, konprometitzea, Urnieta-ko auzo bateko festak direlako. Hemengo musika-taldeak lotzea

kostatu ohi zaigu gehien eta aurrekontua txiki dugu, gainera; ondorioz, ezin dugu talde handirik ekarri. Aurtan, Bossa Jazz-Blues taldeko herrikideak izango ditugu. Zitzu bizian erantzun ziguten baietz, prest zaudela, beraiekin harremanetan jarri ginenean. Bertsioak jotzen dituzte, polita da. Halaber, ohituraz, harremana daukagu Super H-rekin. Prestutasuna agertzen dute gurekin beti.

Etxeberriko festek parranda-giroaren lekukoa ematen diete Sanmielei. Horietan ere parte hartuko al duzue? Disfrutatuko al dituzue?

Normalean, atsedean hartzen dugu, antolakuntzari dagokionez. Dena dela, Etxeberri plazan ere hitzorduak egotea ahalegintzen gara San Miel jaietan. Festa-giroa herriko beste toki batzuetara zabaldu nahi dugu, auzoei garrantzia emateko. Oso inportantea da.

Hemen dira, hortaz, Etxeberriko festak. Zerbait esan nahi al diezue herritarrei?

Finean, guztiei begirako ekintzak prestatzen ditugu, txikienetatik hasi eta adinekoetara bitarte. Animatu dadila jendea gurera!



AIURRI

Goiz pasa, Super H-rekin


Larunbat goizean hasita, Super H elkartearekin elkarlanean, ginkana izango da. Nagusiki, haur eta gaztetxoei begira. Aurpegi-margoketa, jolasak... Hau ez da bi elkarteek elkarrekin lan egiten duten lehen aldia. 11:30ean hasita, goiz pasa ederra igarotzeko aukera dago Etxeberri plazako jai-gunean.



AIURRI

Auzo-bazkaria

Urtez urte, garrantzia irabazi duen hitzordua da larunbat eguerdiko bazkaria. Berez, asteazkenean amaitu zen txartelak eskuratzeko aukera. Euskal parrillaren eskutik, jaki goxoez osaturiko menua eskainiko dute. Auzoa, komunitatea egiteko garrantzi handiko hitzordua da mahaiaren bueltan egiten dena.



AIURRI

Jaien hasiera

Urnietako haur eta gaztetxoek galdu ezinezko hitzordua dute, datorren ostiralean. Txupinazoa bota eta berehala, apar festa iragarri dute.



euskara hurbil,
zu urrun heltzeko

aek euskara praktikoa

EUSKARA-IKASTAROAK
Urnietako AEKn (2023/2024)

MATRIKULAZIOA ZABALIK!
Irailaren 1etik 30era arte.

- Maila guztiak
- Aurrez aurreko eskolak
- Autoikaskuntza

Matrikulazioa eta informazioa:
San Juan 42, 1. solairua
662 338 747 · urnieta@aek.eus

DIRULAGUNTZAK

Urnietako: matrikularen % 100 izango da, gehienez, langabetuentzat eta % 85, gehienez, lanean ari direnentzat.

HABEren dirulaguntza % 100era arteko dirulaguntza jasotzeko aukera.

Xabier Lasa URNIETA

"Urnietako Memoriaren Ibilbidea. 1979-1993" izeneko liburuxka kaleratu du, berriki, Eneko Bustillo Gonzalezek (Urnietako, 1992). Udalerriko sei gune markatzen dute ibilbidea: San Juan Plaza (1), Jose Ramon Ansa Etxeberriaren oroitarria (2), Jokin Altimasbere Eskosen oroitarria (3), Jose Kamio Larrañagaren jaiotetxe Babiloni baserria (4), Juankar Alberdi Martirenaren bizilekua (5) eta Gurutze Iantzi Igarategiren bizilekua (6). Egileak elkarrizketa eskaini dio Aiurri-ri, argitalpenaren nondik norakoak azaltzeko.

Hitzaurrean aipatzen denez, heriotza bidegabea jasan zutenen bizitza eta memoria mahai-gaineratzea dela argitalpenaren helburua.

Ibilbidearen proposamena aitzakia da Urnietan barrena beste modu bateko ibilaldia egiteko, eta, bide batez, Urnietako historiaren parte bat izan arren, azalaratzeko ahazten doazen heriotzekin lotutako gertakariak. Gertakariak aipatzen ditudanean, urnietarrei nahiz ondoko herrietako herritarrei Urnietan gertatutakoak adierazi nahi ditut. Era horretan, San Juan plaza abiapuntutzat hartuta, irizpide kronologikoa erabili dut bost gertakari zenbatzeko. Azkonobieta baseritik Xoxokara doan bide bazterrean dagoen Joxe Ramon Ansaren omenezko oroitarria (1979) da lehenbizikoa, eta herribarnean dagoen Gurutze Iantziren bizitokia azkena (1993). Bostetik bi Urnietan hildakoak dira, beste hirurak Ciudad Realean, Madrilen eta Hendaian.

Urnietan ere izango da herriak ETAK lau pertsona (Inazio Olaiz Mitxelena, Ramiro Carasa Perez, Pablo Sanchez Cesar eta Froilan Elespe Inciarte) ere hil dituela esango dizunik.

Zientzia politikoetan lizentziatua naiz, formazio akademiko hori jaso dut, baina, aldi berean, badaukat posizio ideologikoa, eta hori hitzaurrean definituta egin dut lan. Euskal nazioaren askapenerako borrokaren ikuspuntutik egin dut argitalpena hain zuzen, eta ezin dut ukatu hori. Nire subjektibotasunetik, gaia ahalik eta objektiboen lantzen saiatu naiz, nahiz eta jakitun izan jokabide hori ez dela batzuen gogokoa izango. Zintzo jokatu nahi dut, zein den nire asmoa garbi agertzearekin. Errespetuz

"Ahaztuen memoria azaleratu nahi dut"

ENEKO BUSTILLO ZIENTZIA POLITIKOETAN LIZENTZIATUA

Udalerrian barrena iragan gatazkatsuak utzitako hainbat gertaera jaso ditu "Urnietako Memoriaren Ibilbidea. 1979-1993" izena duen liburuxkan



Eneko Bustillo urnietarra, liburuxka eskuetan duela. AIURRI

aritu naizela iruditzen zait, inor iraindu, gutxietsi edo goraipatzeko asmorik gabe.

ETAK hildakoek badituzte beren omenaldi eta aitormen ofizialak, memorialak, diru-laguntzak... Nik ez ditut horiek gutxietsi edo mindu nahi inolaz ere; bakar-bakarrik, ahaztuen memoria azaleratu nahi dut. Estatuaren parte-hartzearekin edo oniritziarekin hildakoenena, epaiketa, memoria, aitormena edo justizia ukatu zaienena. Azken batean, politika ez da neutroa, eta Estatu ere ez da neutroa; ez da hala izan ez iraganean, eta ezta orain zein etorkizunean ere. Estatuak memoria eta aitormena ukatzen dien horiek sentitzen ditut nik hurbilago.

Argitalpen honek hildako horiek gogoan hartzeko eskatzen duenean, ez du bilatzen Urnietako Udalak egin diezaien omenaldia; izan ere, azken 40 urtetan ez bada gogoratu horiekin, politikoki hala erabaki duelako izan da, eta ez du zentzu askorik orain eskakizun hori egitea.

Ibilbideko bost pertsona horien kasuak azaltzeaz gain, Heriotzaren Triangelua izenburuko eranskina dakar liburuxkak.

Gure eskualde naturalean zortzi eraildako gertatu ziren urte gutxiaren bueltan, 70-80ko urteetan. Egundoko giza sarraskia izan zen, eta hura zuzenean bizi izan zutenei entzun izan diet maiz aparteko zirrara eragin zietela, beldurra airean ibiltzen zirela etxera erretiratzeko orduan-eta. Biolentzia modu indiskriminatuan erabili zuten, jende zibila motibazio berezirik gabe erail zuten, euskalduna izate hutsagatik, biztanleriari izua sartzeko xedez, desmobilizatzeke.

Gertakari haiek deskribatuz egin zuten dokumental bat orain urte batzuk, eta harrigarriena da ez dagoela eskuragarri ez sarean ez inon. Eman zuten ETBn, eta geroztik ezin eskuratu inon! Hildako horienganako bazterkeriaren adibide esanguratsua izan liteke hori.

Dokumentala aipatu duzu. Ze beste iturri erabili dituzu?

Memoriaren gaiarekin badaukat jakinmina, eta eskura neukan informazio asko lehendik ere. Iturri anitzak erabili ditut, egia esan: Euskal Herria eta Askatasuna izenburuko entziklopedia, Aiurri eta beste zenbait egunkari eta aldizkaritan agertutako

Liburuxkan hizpide diren bost kasuak



Ansa.

Jose Ramon Ansa Etxeberria
1979/05/06

Santa Krutz jaietatik etxera zihoala, Triple A taldeko bi kidek bahitu eta erail egin zuten, Azkonobieta baserritik gertu, Xoxokako bidean. Bertan oroitarria jarrita dago. Aurten, senideek *Ez gaude ahaztuta* dossierra argitaratu dute senideek. Aldi berean, senideek eta adiskideek oroitzapen ekitaldia egin dute bertan.



Altimasbere.

Jokin Altimasbere Eskos
1980/11/14


Jokin Altimasbere eta Andres Etxeberria bere lehengusua salestarren ikastetxe parean, biak hernaniarrak, tirokatu egin zituzten; lehenak bizia galdu zuen eta zaurituta geratu zen bigarrena. Batallon Vasco Español (BVE) taldeak hartu zuen bere gain eraso. Bertan, oroitarria ipinita dago geroztik.



Kamio.

Jose Kamio Larrañaga
23/11/1989

Hendaian, Hundayais tabernan, BVEeko hiru kidek barruan ziren bezero guztiak tirokatu zituzten. Joxe Kamio eta Jean Pierre Haramendi hil egin zituzten eta beste hamar zauritu. Hiru hiltzaileak Hendaia mugan atzeman zituzten, baina aske geratu ziren agudo, Ballesteros komisarioari hots egin ostean.



Alberdi.

Juankar Alberdi Martirena
1988/06/15

Herrera de la Manchako espetxean 15 urteko zigorra betetzen ari zen 1979ko maiatzaz geroztik, ETAko kide izatea leporatuta. Bihotz gelditze baten ondorioz hil zela adierazi zuen bertsio ofizialak. Hil bezperan, ondoezik zegoela jakinarazi zioten presondegiko arduradunei, baina mediku asistentziarik gabe hil zen biharamunean.



Iantzi.

Gurutze Iantzi Igarategi
1993/07/21

Egun horretan atxilotu zuten, senarrarekin batera. Beste 30 lagun atxilotu zituzten Gipuzkoan, egun horietan, Julio Iglesias Zamoraren bahiketarekin zerikusia zutelakoan. Tres Cantoseko (Madrid) Guardia Zibilen atxiloaldian zela hil zen, hilaren 24an. Bihotz arazoa aipatu zuen bertsio ofizialak, baina torturak salatu zituzten hainbat atxilotuk.

erreportaje eta elkarrizketak, Joxe Ramon Ansaren familiak berriki argitaratu duen 'Ez gaude ahaztuta' dossierra... Sarean gauza asko topa ditzakezu gaur egun, gaiaren gainean.

Hori bai, gauza xume, irakurterraza eta erabilgarria egin nahi izatera, badago nondik heldu. Aipatzen ditut iturrien atalean horietako zenbait.

Kontuan hartuta 1979-1993 denbora-tartea hartzen duela liburuxkak, azken gertakaritik 30 urte igaro dira. Zenbat eta nola oroitzen dituzte urnietarrek?

Erabat normaltzat jo behar da gero eta gutxiago oroitzea, gero eta urrunago daudelako gertakariak, gero eta jende gutxiago dagoelako gure artean gertakari haiek bizi izan zituena. Nolanahi ere, faltan botatzen dute gure aurreko belaunaldiengandik transmisio sakonago bat. Gure etxean eta beste zenbaiten etxetan zerbait kontatu izan da, baina ez nahikoa. Uler dezaket gurasoen jokaera, alegia 18-20 urte bitarteko seme-alabei "zintzo jokatu eta ikasi" leloa zabaldu nahi izatea, eta horretarako, iraganeko atal triste, mingarri



Aurtengo maiatzaren 6an Jose Ramon Ansa Etxeberriaren lagunek omenaldi ekitaldia antolatu zuten. AIURRI

eta krudelak ezkutatu nahi izatea, edo soilik oso modu arinean kontatzea. Eta uler dezaket, bizitza aurrera doala, eta belaunalditik belaunaldira gauzak ahazten joatea. Eta uler dezaket memoria ez dela betirako, eta, denbora joan ahala, memoria urruntzen eta desagertzen joatea. Hori dena uler dezaket, baina berriro diot, faltan botatzen du-

dala transmisioa sendoagoa gertatu ez izana.

Zehazki, Urnietan, Juankar Alberdi eta Gurutze Iantzi hartzen dira gogoan ekitaldi xume banarekin, urtero. Joxe Ramon Ansaren kasuan, aurtengo maiatzean modu berezian gogoratu dute senideek eta adiskideek. Jokin Altimasbereren eta Joxe Kamioren gainean, berriz, ez da

ekitaldi publikorik egin urtetan. Altimasbere omentzeko bere garaian Salesiarren parean oroitarria jarri zen, baina ez dago zaindua.

Eta geure memoriarekiko interesa sumatzen al duzu?

Pena da, baina irudipena daukat, hamarkada intentsuak, gogorrik bizi ostean, gizartea, orohar, erlaxatu edo hustu egin dela

memoriarekin. Iraganeko konpromisoak apaldu eta arnasa lasai hartzeko gogoz dago, eta gai honi ez dio iraganeko tentsioarekin edo motibazioarekin begiratzen, nahiz eta kontzientean izan munduak injustiziaz beterik segitzen duela. Ikuspuntu soziologiko eta psikosozialek aztertzen baduzu egoera, ulergarria da. Alde horretatik, aurreko belaunaldiengan ez ezik, gazteagoengan ere ez dut sumatzen aparteko interesik.

Liburuxka eskuratu nahi duenak zer egin behar du?

Printzipioz, Iantzi edo Alberdiren omenaldi-ekitaldietan banatuko da, San Juan plazan. Iantzirena, laster, irailaren 23an egingo da. Eta gainerakoan, bi ekitaldi horien antolatzaileongana jo eta eskatzea da errazena. Borondatea besterik ez zaio eskatuko, gastuekin parra egiteko behintzat. **Ibilbidea proposatu ostean, bisita gidaturen bat antolatzeko asmorik ez?**

Datorren azaroan nahiko nuke egin bat, Altimasbereren eta Kamioren erailketen urteurrenarekin bat eginez. Ez dago zehaztuta ekimena, baina iragarriko da aurrerago.

Adiorik ez, Julen

Irailaren 6an azken agurra eman zioten Julen Amondaraini, Andoaingo San Martin elizan. Zarautzen bizi zen arren, herrikide eta pilota alorreko lagun ugari hurbildu zen hileta-elizkizunera

Xabier Lasa ANDOAIN

Erremontearekin eta Galarretako pilotalekuarekin hamarkadetako lotura eduki zuen Julen Amondarain Rodriguez (Andoain, 1970) irailaren 4an hil zen, eta senitartekoez eta lagunek handik bi egunera egin zioten azken agurra Andoaingo San Martin parrokiari. Lau urtez (1992-1996) erremonteko jokalaria izan zen, eta saskia utzi ostean, Galarretan bertan artekari gisa jarraitu zuen makina bat urtetan.

Senide, adiskide eta pilota munduko ezagun ugari bildu zen hileta elizkizunean. Amondarainen gaineko adierazpenak jaso genituen bertan.

Jon Fernandez eta Mikel Otamendi, adiskideak

“Kuadrillako kidea izan genuen. Gaztetan kirolari bikaina zen, eta ikastolan atezaina izaten genuen, Ontza izeneko taldean. Futbol zelaietan baloiak airean gelditzeko egiten zituen ahaleginek, beharbada, lagundu egin zioten gero pilotaria izan zedin. Buruz ere bizkorra zen, eta industri-perituko ikasketetan oso urrun iritsi zen, bi ikasgaien faltan geratu zen titulua lortzeko. Hitz-jario bizia zuen, eta jardun zuen lanetan “komertzial” izateko egoki-egokia zela erakutsi zuen. Galarretan artekari bezala artista zela, hori denak aitortzen dute”.

Xabier Bitoria, pilotari ohia

“80ko hamarkadaren amaieran, Andoainen, lau gaztetxo bildu ginen erremonteko saskia hartu eta elkarrekin jokatzeko: Julio Abrego, Juanxo Larrarte, Julen Amondarain eta lauok. Tarteka Galarretako eskolara joaten ginen, baina hainbestekoa zen gure afizioa, ahal genuen guztietan Arraten ere aritzen ginela. Hori bai, libre geratzen ziren azkeneko orduetan baizik ez, 22:30etatik aurrera eta horrela, eskuko, palako zesta puntako pilotariak eta Leizarango eskubaloiko taldeek



Julen Amondarain. AMONDARAIN

libre uzten zituzten orduetan, alegia. Igual goizeko 01:00etan erretiratzeko ginen etxera, pilotalekuko giltzak udaletxean udaltzainei utzi eta gero. Galarretan pilotari profesionala izatea zen gure ametsa, gogoko kirola izateaz agin, ogibidea izan zitekeelako. Horrela, niri 1992ko uztailearen 6an eman zidaten debutatzeko aukera; Julenek, handik astebertera egin zuen. Atzelari gisa, ondo moldatzen zen, dezente saka zeukan, eta errebotatu ere egoki egiten zuen, baina ez zen punta-puntakoa. Lau urtetan enpresak ez zion modurik eman lehenengo partidutik bestetarako jauzia eman zezan, Galarreta eta Azpeitiko pilota eskolatik gazteak gogor zetozen, eta azkenean, aurrerabiderik ikusi ez eta, saskia uztea erabaki zuen. Laster, artekari bezala hasi zen, eta hor bai nabarmendu izan zela; askok aipatu bezala, *crack* bat zen”.

Jon Sarasua, pilotari ohia

Erremonteko jokalaria azpeitarrak bikote eta aurkari gisa jokatu zuen Amondarainekin. “Bera aurkaria izanik egin nuen debuta, 1995ean; hain zuzen, Zeberio-Amondarain/Sarasua-Mendizabal izan zen partida. Handik gutxira utzi zuen, eta ez ezin izan nuen gehiegotan elkarrekin jokatu. Pilotari txukuna zen; sakearekin eta errebotarekin zen ona, nahiz eta

Euzkitzeren bertsoak

Bizitza zein ederra eta bortitza den!
Hara gaur nabarmen herioren aurrean zein biluzik gauden.
Lagun maite, har ezak bakean atseden, baina jotako asko utzi dituk hemen; denontzako argia bidal ezak, Julen.

Beti izan hintzen hi lasterrontzi antxa, braust! egin duk martxa, maite hintugunontzat baduk esperantza. Etdidamu finala: Juanenea/Antsa; hik urrundik ikusi beharko duk, antza, eta hire hutsuneak beteko dik kantxa.

Bizitza ez duk txapel ta garaipen-arku, maiz ohi duk zakartu, bi pareta ederrak ohi zizkiguk sartu. Agurrik esan gabe haiz ilunabartu, baina etsi biterik ez diagu hartu; mila ehuni baietz berriro elkartu!

gero kolpe nabarmenik ez eduki. Tratuan, aldagelatan, hitzuna eta umore onekoa zen”.

Oinatz Gonzalez, pilotari ohia

“Eskupilotan afizionatu mailan ibili eta gero, erremontean hasi nintzen urtebetara, eta horretarako, Julenek eta bere anai Aitorrek animatu ninduten. 2009ko abenduan egin nuen debuta eta beste lau urtetan segi nuen bertan. Egia esan, Julen “instituzio”



Igor Sarasua eta Oinatz Gonzalez, erremonteko pilotari ohiak. AJURRI



Javier Lucas artekaria eta Xabier Bitoria pilotari ohia. AJURRI



Jon Fernandez eta Mikel Otamendi, Amondarainen adiskideak. AJURRI

bat zen Galarretan, artekari gisa, eta bidea erraztu zidan. Pilotari ohi izanik, baliagarriak egin zitzaizkidan aholkuak eman zizkidan; behin eta berriro esaten zidan sasoiko nengoela eta agudo egingo nintzela erremontista; ezkerre erabili izan nuela esku-pilotan, eta horrek ere asko lagunduko zidala ezker-hormarekin jokatzeko orduan, bizi-bizi zetozen pilotekin”.

Javier Lucas, Galarretako artekaria

“Julen asko estimatzen nuen, lankide eta pertsona gisa, eta atsekabetuta nago bere heriotzaren berri edukiz geroztik. Makina bat ordu egin baititugu elkarrekin lantokian pilotalekuan

zein bezeroekin nahiz eta aisialdiko unetan, 2000ko martxo-ekainean artekari gisa ekin genionetik. Aitortu behar da bolada oparoa bizi izan dugula, hasierako urte haietan; 260 funtzioko urteak ezagutu izan ditugu! Alegia, jaialdiak asteartean, ostegunetan, larunbatetan eta igandeetan; eta uztailearen 25etik irailera lehen astea bitarte, egunero-egunero! Hamabi bat artekari bai, jota su, garrasika harmailetan! Ogibidea ikaragarri bizi izan pertsona zen, sutsua, odol-berokoa, eta ezaugarri horiekin oso profesionala zen zegozkion zereginetan. Erremonteko apustuen sisteman iraultza txikia ekarri zuen, bezeroekin tratuan jartzeko orduan”.

Aurre denboraldiko txapelketa, Andoainen

Eskubalo partida ugari, larunbat honetan, Leizaran eskubalo taldearen eskutik

Erredakzioa ANDOAIN

Gasteizko BM Corazonistas, Burlata, Egües eta Tolosa CF taldeak gonbidatu dituzte, larunbat honetako txapelketara. Allurralden eta Arraten infantil, kadete, jubenil eta senior mailako partidak jokatuko dira, egun osoan zehar.

Arrate pilotalekua

09:20

Infantil eta kadete mailako partidak jokatuko dira, goiz osoan. 12:50tan jokatuko da azkena.

Allurralde

09:10

Egun osoan partidak jokatuko dira Allurralden. Jardunaldia senior mailako Leizaran eta Burlata taldeen arteko partidarekin amaituko da, 19:15etan hasiko den partidaren.

Egun osoko txapelketa denez, laguntzaile askoren premia du Leizaran eskubalo taldeak. Zehazki, bazkari zerbitzuan laguntzeko.

Zeregin horretan aritzeko jendearen beharrean daude. Klubak whatsapp telefono zenbakia jarri du eskura, boluntarioek bertan izena eman dezaten: 665 602 375 (Nerea).



Une gogoangarriak bizi zituen UKEko taldeak, aurreko denboraldian. UKE

Denboraldi berria, martxan

2023/2024 denboraldia abiatzear da, Andoaingo eta Urrietako klubentzat. Asteburu honetan eta hurrengoan, federatu mailako talde gehienak asteroko lehiak murgilduko dira. Formakuntzan eta kirol-heziketan garrantzi handikoak dira Euskalduna eta UKE

Erredakzioa URNIETA

Irailari ekinda, abian da futbol-denboraldia Urnieta Kirol Elkartearentzat. Hala, denboraldiaurreko prestaketen ostean, lehen neurketak izango dituzte klubeko gorengo taldeek. Besteak beste, Trintxerperen aurka lehiatuko dira gorritxoak, Gorengo Jubenil mailan, igandean, 16:00etan, Trintxerpen (data baieztatzeke dute). Bide beretik, Gorengo Kadeteek etxean jokatuko dute Aretxabaletaren aurka, larunbat honetan, 16:00etan.

Azkenik, Ostadarren aurka jokatuko du Gorengo Erregionalak, Hernanin, igandean, hilaren 17an, 18:15ean. Erroka exijentea du begien aurrean, izan ere, joan den denboraldiaren amaieran igoera eskuratuta, bide berriari hasiera emango dio, kategoria altuago batean. Entrenatzailearen ahotan, sailkapenaren erdialdean gelditzea du xede taldeak, "ekipoa sendotzeko eta belaunaldi aldaketa modu ordenatuan egiteko". Pablo de Torresek gidatuko du

taldea berriro ere, urnietar harrobiaren aldeko apustua egingez. Alboan izango ditu Aratz Urdangarin eta Javi Pastor.

Euskalduna

Andoaingo klubeko hainbat talde ere lehiak murgilduko dira, larunbat honetan.

Ohorezko jubenil mailako taldeak debuta egingo du Ordizian, 17:30ean. Gorengo Erregion mailan Euskaldunak Bergara B hartuko du Ubitarten, 18:30ean hasita.

Mendeurreneko ekitaldi gehiago, igandean

Euskalduna Andoaindarrak klubaren historian izan dituen atalak omendu nahi ditu

Erredakzioa ANDOAIN

"Hilabete honetan, mendeurreneko ekitaldiei bukaera eman go diegu. Azken ekintzak izango dira, beraz, animatu zaitezte gurekin ospatzera!".

Horrela iragarri du Andoaingo futbol taldeak igande honetarako egitaraua. Irailaren 17 honetan, beraz, hiru hitzordu izango dira:

Mendi-irteera

08:30, Ubitarte

Euskalduna Mendigoizale Elkartearen kideekin batera, Ondolarrera abiatuko dira.

Pilota partidak

10:30, Andoaingo pilotalekuak

Gazteleku Pilota Elkartearen kideekin batera, udalerriko frontoi guztietan erakustaldi ezberdinak egingo dituzte.

Saskibalo partidak

11:00, Goikoplaza

Jokalari ohien arteko partidak.

Datorren igandean, areto futbolekoen txanda iritsiko da. Irailaren 24an, 11:30ean hasita, Euskaldunako gaur egungo eta garai bateko jokalarien arteko partida jokatuko da Alurralde kiroldegian.



Kronika^{ren}

aldeko Herriarteko Erremonte Txapelketa

2023 / 09 / 29 - 16:00 - Galarreta jai-alai

Bailarako 20 sagardotegi baino gehiagoren sagardoa Dantzariak

SARRERA 12€
PINTXOA + EDARIA
"10 URTETIK BEHERAKOAK DOAN"



Kronika

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTIRALA 15

URNIETA Jaiak

Etxeberri plazako jaiak.
Xehetasunak 8-9 orrialdeetan.
Irailak 15, 16, 17.

ANDOAIN Outlet kalean

Eskaintza bereziak udalerriko merkatalguneetan.
18:00-20:00, Txaranga.
Egun osoan. Merkatalguneak.

ANDOAIN IkusZirkus

"Greed", Kine Circus Etiopiako konpainiaren eskutik.
20:00, Bastero. 5 euro.

LARUNBATA 16

ANDOAIN Outlet kalean

Eskaintza bereziak.
Egun osoan. Merkatalguneak.

ANDOAIN Ibilbide gidatua

Andoain Guduari buruzkoa,
Larramendi Bazkunaren eskutik.
11:00, Goikoplaza.

ANDOAIN IkusZirkus

"Harreman", Zirkozaurre konpainiaren eskutik.
18:00, Otieta. Doan.



ANDOAIN Outlet kalean, Bezeroaren Astean

Eskaintza bereziak udalerriko merkatalguneetan, Salkin herriko merkatarien elkartearen eskutik. Arratsaldean Gora Kaletxiki kalez kale ibiliko da.
Irailak 15, ostirala. 18:00-20:00, Gora Kaletxiki txaranga. Outlet Kalean.
Irailak 16, larunbata. Outlet Kalean.

IGANDEA 17

ANDOAIN IkusZirkus


"El apartamento", Circ About It konpainiaren eskutik.
19:00, Goikoplaza.

OSTEGUNA 21

URNIETA Ikus-entzunezkoak

Mendi film jaialdiaren onena
Urnietan ikusteko aukera.
19:00, Sarobe.

ZINEMA




ANDOAIN

BASTERO

CampeoneX
Irailak 16, lar.
19:30.
Irailak 17, ig.
17:00, 19:30.
Irailak 18, ast.
19:30.

Todos los nombres de Dios

Irailak 23, lar.
19:30, 22:00.
Irailak 24, ig.
17:00, 19:30.
Irailak 25, ast.
19:30, 22:00.



SINOPSISIA



CampeoneX

Zuzendaria: Javier Fesser. **Aktoreak:** Jesus Vidal, Gloria Ramos, Jose de Luna, Alberto Nieto, Roberto Chinchilla, Sergio Olmo..
Herrialdea: Espainia (2023). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Komedia, drama. **Iraupena:** 125 min.

CampeoneX

Txapeldunen taldea saskibaloia utzi eta atletismoaren mundu liluragarrian sartuko da entrenatzaile berri baten eskutik. Diziiplina berriaren eskakizun gogorrez gain, entrenatzaileak era guztietako zoritxarrak erakartzeko gaitasun

harrigarria du. Aurrikusitako dena alderantziz aterako da. Horixe Javier Fesser zuzendariaren film berriaz esan daitekeena. Haur, gazte eta helduentzat tarte atsegina igartzeko moduko filma da. Aurtengo ikusien artean izango da urte amaieran, ziur.



MATRIKULA OFIZIALA 2023-2024

Frantsesa A1 - A2 - B1 - B2.1

Ingelesa A1 - A2 - B1 - B2.1* - B2.2* - C1*

* Ikastaro erdipresentzialak ere.

MATRIKULA ZABALIK

Gutxieneko adina:

• FRANTSESA:
14 urte 2023an betetzea

• INGELESA:
16 urte 2023an betetzea

Prezioa:
72,36€

IKASTURTE OSOA

www.eitolosaheo.hezkuntza.net
info@eitolosaheo.net - 943 69 75 60





Iretargi filmaren sekuentzia. IRETARGI

Mendi Film Festival jaialdiko onena, Urnietan ikusgai

Saroben izango da irailaren 21ean, arratsaldeko 19.00tan hasita, Zanpatuzen eskutik

Erredakzioa URNIETA

Jatorrizko hizkuntzan izango dira emanaldiak, baina azpitu-tuluak izango dituzte euskaraz zein gaztelaniaz.

IRETARGI

(2022, Espainia, 3min)

Zuzendaria: Janire Etxabe Otsoen

Ilargia, 2022ko otsaileko ilargi betea, Etxaurin. Dantza bertikalaren eta eskaladaren arteko fusioa. Phelipe Eizagirrek, Yhabrilek eta Janire Etxabek gorputzutako sekuentzia artistikoa.

LTHIS IS BETH

(2022, Kanada, 18min)

Zuzendaria: Jen Randall

Beth Rodden historiako eskalazailerik emankorrenetako bat da. El Capitanen igoera asko osatu ditu era askean, eta punta-puntako lehen igoera ugari ditu. Ibilbide arrakastatsu horrek, ordea, errealitate gogorra

du atzean ezkutatuta: bere gorputz-itxurarekin eta barne-hizketaldi krudelekin borroka betean bizi zen Beth.

FREE RIDER

(2022, Frantzia, 33min)

Zuzendaria: Jérôme Tanon

Sam Anthamatten (eskia) eta Victor de Le Rue (snowboarda) Alaskako bazter basatienean muga berrien bila. Helburua: horma bertikalak konkistatzea konpromiso handiko bideetan, zein baino zein muturrekoagoa..

DE L'OMBRE À LA LUMIÈRE - FROM SHADE TO LIGHT

(2022, Frantzia, 61min)

Zuzendaria: Sébastien & Davina Montaz
Charles Dubouloz alpinista frantziarra lehena izan da Grandes Jorasses-en (Chamonix, Frantzia) ipar isurialdeko "Rolling Stones" bidea (5.10 A3, edo M8, 1.100 m) neguan eta bakarka eskalatzen.



AIURRI

Extremadurako eguna

Hogar Extremeño elkarteko bazkideak, udal ordezkariak eta herri elkarteetako zenbait ordezkari bildu ziren Hogar Extremeño elkartean, irailaren 9an. Extremadurako ereserkia abesteaz gain, hildako bazkideen omenezko minutu bateko isilunea egin eta gero Guadalupeko Ama Birjinari lores eskaintza egin zioten.



NUÑEZ

Dantzaldia Goikoplazan

Ikasturte berriarekin bat eginez, "Euskara plazara" musika emanaldiaren edizio berria antolatu zuen Andoaingo Udalak, aurreko ostiralean. Goikoplazan euskal kanten errimora dantzan aritu ziren haur eta gaztetxoak, eta baita gurasoak ere. Iaz ekin zioten ekimenari, Zumea plazan. Dantzan eta kantuan hastea, eta euskaraz, ez da plan txarra!

ZORION-AGURRAK



ANDOAIN

Zorionak Bikote!!

Aitonak irailaren 8an 83 urte eta Maddik 15ean 13 urte!! Jarraitu bizitzari aurre egiten eta irribarre polit hori mantentzen. Eskerrik asko oparitzen dizkiguzuen momentuengatik. Muxu potoloak etxekoan partez!!!



ANDOAIN

Zorionak Nikole

Nikole Arretxe Lizaso. Irailaren 16an 3 urte beteko ditu.



ANDOAIN

Zorionak Oihan

Zorionak etxeko mutil handiari! 5 urte dagoeneko! Muxu asko etxeko danon partez!

Andoaingo Irakurketa Kluba datorren astean abiatuko da

Irailaren 19an, asteartearrekin, haurrak eta helduak literaturan murgiltzeko aukera izango dute. 2019an jaiotakoentzat, saioa 17:00tan hasiko da. 2015-2018koentzat, berriz, 18:00tan. Bertaratu aurretik izena eman beharra dago liburutegian, Basteron edo liburutegia@andoain.eus e-postara idatzita. Saio gehiago izango dira urriaren 24an, azaroaren 21ean eta abenduaren 19an.

ODOL-EMAILEAK

HURRENGO HITZORDUAK

Irailak 20, asteazkena.

16:30-20:30. URNIETA, Gazteleku Plazido Mujika Enparantza.

MERKATU TXIKIA

ALOKATU

Garaje marra alokatuta hartu nahiko nuke Andoaingo Ondarreta auzo inguruan. 660 122 632.

PARTE HARTZEKO

diseinua@aiurri.eus

619 163 537 - 943 300 732



Urnietako
udala



andoainDARRA
euskaraz



Andoaín, Urnieta eta Goiburua aldera trafikoa bideratzen duen biribilgunetik oso gertu eraikiko dute gunea berria, ISN edo garai bateko Moulinex enpresaren atzealdean. Irudiaren atzealdean Urnieta herringunea ageri da. AIURRI

Gasolindegi erraldoia Urnietan

Jaen probintziako Linares hirian egoitza duen MLC Energia enpresak sarean iragarri duenez, 2024rako martxan izango da Ergoien auzoan "Gipuzkoako gasolindegi handiena". 25 kamioiri batera zerbitzua emateko gai izango omen da

Jon Ander Ubeda URNIETA

22.000 metro karratuko lur azalera da, eta irudiari erreparatuta, abiada bizian doaz eraikuntza lanak. Ez da beste gasolindegi bat gehiago izango. Trafiko pisutsuaren sektorearentzat era-

kargarri izan nahi duen iragarpena egiten du MLC Energia Andaluziako enpresak: "25 kamioi aldian berean gasolina betetzeko gaitasuna, kamioiak bertan egoteko gunea segurua, hotela, jatetxea, gimnasioa, relax gunea,

ileapaindegia eta askoz gehiago...". Sei hilabete barru martxan izango dela aurrikusi dute. Trafiko pisutsuaren pausaleku bilakatu ko dira, beraz, Andoaín-Urnieta.

Twitter sare sozialean, inguruotako erabiltzaileen artean

zabaldu zen albistea, aurreko astean. Andoaingo eta Urnieta hainbat lagunek eraikuntzari buruzko iritzia ematen aritu ziren, gehien-gehienek inguruan dagoen gasolindegi kopuru handiaz ohartarazteko. Izan ere, Ergoien biribilgunean bertan Shell konpainiako gasolindegia dago. 2018an ireki zituen ateak. Eta askoz zaharragoa ez da, metro gutxira, Andoaingo lurretan aurki daitezkeen CEPSA gasolindegia. Eta Andoaingo herri-gunera gehiago hurbilduz, Leizotz industrigunean, bada hirugarren gasolindegia. Ez dira gutxi hara depositoa betetzera hurbiltzen diren kamioiak.

Gainerakoan, egitasmo honen gaineko informazioa eskasa izan da. Enpresa bera sare sozialetan iragartzen hasi zen arte, inork gutxi zekien horrelako egitas-

morik zetorrenik. Agerikoa da, etorkizun hurbilean, kamioien agerpena handituko dela inguruotan. Trafikoa izango duen eragina antzemango da, ezinbestean. Eta, bestalde, trafiko horrek herri barruan eragingo duena ikusteke dago. Izan ere, Leizotz aldetik Andoaingo herri-guneraino iritsi daitezkeen tamaina handiko kamioien kopurua areagotzeko arriskua dago. Berez, galerazita dute herri-gunean sartzea. Seinaleztapena oso argia da. Baina, esaterako, N1 edo A15 autobideetan trafiko arazoak direnean, tamaina handiko kamioi bat baino gehiago udalerrira sartzen hasi eta La Salle etorbidera iritsi orduko, buruhautsea besterik ez dute eragiten. Herri barrua ez baitago kamioien trafikoa jasateko egokitua.